| Ardatz estrategikoa: | 5. ardatza.- Administrazio elektronikoa | Proiektua: | 5.1. Zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredua |
|---|---|---|---|
| **Azpiproiektua:** | **5.1.5. Administrazio Elektronikoaren Behatokia** | | |
| **Deskribapenaren laburpena:** | Behatoki bat sortu nahi da, administrazio elektronikoaren egoerari, eboluzioari eta jardun-lerro posibleei buruz dagoen ezagutza ordenatu eta argitaratu dezan. | | |

| Helburu orokorrak: | Helburu operatiboak: |
|---|---|
| • Administrazio elektronikoari buruzko informazioa eskurago jartzea, arlo horretako politikak eta zerbitzuak hobetzeko. | • Behatokia sortuta egotea 2014ko abendurako. |

**Egikaritzea:**

- Administrazio Elektronikoko Behatokiaren funtzioak partzialki ari dira garatzen.
  - Sailaren organo estatistikoak hiru hileko txostenak egiten ditu Eusko Jaurlaritzan zerbitzuak digitalizatzeko prozesuaren eboluzioari buruz, eta Zerbitzu Publiko Elektronikoen Galdeketa (ZPEG) ofiziala, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparrukoa eta hamabostean behin egitekoa.
  - DACIMAek Administrazio Elektronikoaren Behatokiaren urteko galdeketa betetzen du, eta Administrazio Elektronikoko Sektoreko Batzordearen esparruan egiten da.
- Era berean, PLATEA-Administrazio Elektronikoaren plataformaren kudeaketa-adierazleen sistema bat dago, aukera ematen duena informazio garrantzitsua lortzeko eskaerei, espedienteei, jakinarazpenei eta elkarreragingarritasunari, hau da, administrazioen arteko datu-kontsultei buruz. Baina oraindik ez ditu hartzen zerbitzu elektronikoen kudeaketa-esparru guztiak. Hala, honako hauen azterketak falta dira adierazle-sistema horretan sartzeko: identifikaziorako eta sinadurarako bitartekoak, artxibo elektronikoa edo barne-kudeaketako eta ofiziozko espedienteak (ondare-erantzukizuna eta zehapen-prozedura).

| Arduraduna: | Aldi baterako aurreikuspena: | Egikaritzeko benetako epea: | Egoera: | Balorazioa: |
|---|---|---|---|---|
| • DACIMA<br>• Administrazio elektronikoaren organo estatistikoa | Epea: 3 urte<br>Hasiera: 2014<br>Amaiera: 2016 | Hasiera: 2014<br>Amaiera: | ☐ Amaitua<br>■ Aribidean<br>☐ Hasi gabe | ☐ Positiboa<br>■ Hala-nolakoa<br>☐ Negatiboa |

**Oharrak:**